

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2023 000004871

Xedea

2023-11-29(e)ko **OSOKO BILKURA** deialdia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko uztailaren 5eko Udal Osoko Bilkuran osoko bilkuren aldirotasuna finkatzea onartu zen. Aldirotasunaren inguruan, hain zuzen ere, hauxe onartu zen:

“ ...

LEHENENGOA: *Osoko Bilkuren aldirotasuna modu honetan finkatzea, lehentasunez:*

Hilero, azken ostegunetan 18etan, salbu eta ekaineko eta uztailleko osoko bilkurak goizez izango direla 8.30tan.

Abuztuan eta abenduan ez da osoko bilkurarik egongo.

BIGARRENA: *2023. urterako lehentasunez erantsitako egutegia onartuko da eta urtean-urtean bozeramaileek adostuko dute egutegia. Dena den, alkateak justifikatutako arrazoen ondorioz (jai eguna delako, agenda arazoak daudelako, quoruma bermatzeko...) edo bozeramaileek gehiengoz erabakitzearen ondorioz eguna eta/edo ordua alda daiteke.*

...”

Bigarrena: 2022ko azaroaren 22ko Bozeramaileen Batzarrean saioen 2023. urterako egutegia onartu zen eta horren arabera 2023ko azaroaren 29an ohiko Osoko Bilkura egongo da.



Argudioak

Bakarra: Alkatetzak OSOKO BILKURAKo deialdia egiteko eskumena dauka aipatutako artikuluez gain, legeria honen arabera:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 21.1.c) artikulua
- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 41.4 artikuluetan xedatutakoa.

Ebazpena

Goian aitatutakoa kontuan hartuta, honako hau ebatzi dot:

LEHENENGOA: OSOKO BILKURA osatzen daberen zinegotziak deitzea ohiko batzarrera.

BIGARRENA: Deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diran zehaztasunen arabera egin eta bertan agertzen dan gai zerrendea onartzea. Ikusi 1. eranskina.

HIRUGARRENA: 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi geroago eta ordu berean deitzea 2. deialdian.

LAUGARRENA: Jakinaraztea zinegotzietan asistentzia nahitaezkoa dala, bertaratzea galarazten dauen arrazoi justifikaturik egon ezean.

BOSGARRENA: Jakinaraztea gaurtik aurrera, udal honetako Egoitza Elektronikoa edo Idazkaritzan eskura dagozala gai zerrendako gaiakaz zerikusia daukien espedienteak.





BATZAR DEIA

Deitutako organoa:	OSOKO BILKURA
Batzarra:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Eguna:	2023-11-29 (Asteazkena)
Ordua:	18:00
Lekua:	Gizarte eta Kultura Etxeko gaztelekuko lokala
2. deialdia:	2023/12/04 (Astelehena) 18:00


GAI ZERRENDEA

1. - Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2023-10-26 OB (12)
2. - Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 6-14 urte bitarteko haurrei gizarte ongizatea sustatzeko estimulazio eta esku-hartze goiztiarren tratamenduen gastuak ordaintzeko laguntzen berriazko oinarriak onartzea.
- 4.- Udaltzainen aukeraketa deialdi bateratuan txertatzeko kudeaketa gomendioa onartzea.
- 5.- Udaltzainen aukeraketa etorkizuneko deialdi bateratuan txertatzeko kudeaketa gomendioa onartzeko eskumena alkatearengan delegatzea.
- 6.- EH Bilduk eta Guzanek aurkeztutako Euskal Herriko Pentsiodunen mugimenduak proposatutako "Gutxieneko pentsioa 1080 mozioa" onartzea.



- 7.- EH Bilduk eta Guzanek aurkeztutako udal ordezkari sindikalek proposatutako "Zaintza eskubide kolektiboaren aldeko mozioa" onartzea.
8. - Udalak sinatutako adierazpen instituzionalen berri ematea.
9. - 2023ko 3. hiruhileko hornitzaileei ordainketen inguruko txostenaren berri ematea.
10. - 2023ko 3. hiruhileko morositate datuen berri ematea.
11. - 2023ko 3. hiruhileko fakturei buruzko txostenaren berri ematea.
12. - 2023ko 4236-4817 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
13. - Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2023ko urriak 24 eta 31 eta azaroak 7, 14 eta 21eko erabakiak.
14. - Eskari eta itaunak.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .

 STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E7000E189300M8R9Z3V9I6W1	Sinadurea eta data NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 24/11/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/11/2023 12:45:11	: 2023000004871 Data: 24/11/2023 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
	